

FALANJISTA-BERRIEK. GEOGRAFIA BERRIA.

Landeia (1967 Abendua)



Asieran Aresti zen; eta Aresti lurraren argia zen; eta argiak illunpeak kendu nahi zituen, ata illunpetatik Saizarbitoria bakarrik agertu zen...

Arrigarria da nola aurreratu duten Geografia, goitian aipatu geografo berriak. Ba ginakigun, egoeraren arabera ikusten zutela munduaren bizia; baita mesede hori izpiritu berezi batzueri tokatzen zaiela bakarrik ere. Ni ez nintzen horrerik ohartu, Parisera joan arte. Aisalden batean, handik atera gabe, Afrikako ipar aldean egona ninduzuten (denak dakizuten bezala, iri haundi hura, arjelinoak eta marrokiak bizi diren auza bat da); beste egunen batean, Calabria eta Messina bisiatatu nituen ("Place de l'Etoile" delakotik 16 kilometrara dagoen "bidon-ville" batean). Ez nuen "Sierra de Cazarla" delakorik bisiatu nahi: aski ezaguna dut "Carpetobetonian" berean.

Galde egingo duzue nola diteken hori posible; "Paris la nuit" delakoaren ametsak, edo LSD izenekoaren ondokoak ez ote zirela izango. Ez!, ghettoan zaudeten irakurle atzeratuak; horiek dire Geografía-bide berria delakoan maixu diren Aresti eta Saizarbitoriaren irakaspenak. Hortarako izpiritu berezi eta aberats bat behar da izan noski; eta sensibilidade haundi bat errealidadearen aurka joateko, eta denbora eta espazioa dausetzeko (historioa eta zentzu komunaren anulazioa).

(Ai burgesak!, beste gizonekin mail berean, begietakorik gabeko poetak eta ameslariak sartu nahi dituzuenak!; beste edonor izan ba lira bezala).

Orain dela denbora gutxi, Saizarbitoriak, berak bizi izan dituen Unibersoa maitasun eta anaitasunaren esperienziak kontatu zizkigun. Gallego baten zatutik ardoa edaten; gaztelatar batekin solasa; eta lo kuluxka bat andaluzar batekin zaindua. Pena da Saizarbitoriak ez duela bidaia gehiagorik egiten. Bestela ikasiko luke tango arjentinoa dantzatzen porteño batekin, hawaiiana baten magalean lo egingo luke (zein garai ona, Arestiren poesiak irakurtzeko!), edo bakeraren pipa delakoa egiazko cheyenne batekin erre... Bitartean, Saizarbitoriaren unibersoa, Alcarriako unibersoa dela pentsatzera bortxatuak gaude. Edo-ta, Alcarriar salbo, munduan gizon eta andre normales ghettoak besterik ez dagola pentsatzera iritxi ote dire?; bere eguneroko lanean alienatuak, eta bizarraren indarra konprenitzen ez dutenaren ghettoak, noski.

Mundu guziko herri guzietan zaintzen dute gogorki beren luraren gain duten eskubide osoa. Ezinbestez: eskubide hori gabe herria bera suntsitzen da ta. Jakiña, beste lekuetatik etorritakoek, horretara nahi BALIN BA lute ere, ez lukete hori aldatzeko deretxorik, nahiz ugari edo gutxi izan. Bestela, bide egokia luke kolonialismoak besteen lurretan eskubide osoa irabazteko, baita herri menperatua "por pisos" saltzeko ere! Hori dionak, demokraziaz burla egiten du, besterik ez.

Hola pentsatzen dute, bai, mundu guziko "ghettoetan", izanik ere Viet-Nam, Québec, Cuba, Goa, U.R.S.S., Txina, Argelia, Angola, Jordania, Israel, Polonia, Argentina, eta abar, azkeneraño. Holaxe ere esan du, behin eta berriz U.N.O. delakoaren ghetto haundiak. (Oraindik orain, "Libro Rojo Español" delakoan, espainiar faziztek ere horixe diote Gibraltar dela-ta, hango kasua oso berezia izanik ere: "El patrimonio histórico territorial, la integridad del territorio español no pueden ser alterados por la voluntad de poblaciones adventicias, etc. etc." Gure geografo berriek ez dute liburu hortan parte hartu?

Dena dela, Aresti ta Saizarbitoria ez ditugu horrekin konforme... Euskal-Herria delata. Egia esan, badakigu, jaun hoeik "integridadea" baño nahiago dute desintegrazioa, hau da "logica eskizofrenika", fazista ta fazista-berrien pentsaera berezia.

Gure geografo berriek itzultzen dute "euskeraz", espainiar burges kolonialisten betiko ideolojia. Falanjismo zaharrak topo egin du lur hontan. Falanjismo berria saiatzen da berean, kareta zaharra pixka bat aldatuz. Espainiar razismoak itsutua egon behar, uste izateko euskaldunok onhartuko dugula gure kalte, iñork munduan onhartzeko ez duena bere etxean. Ez horixe! Askotan "etxe-kalte" izanik ere...

Gure jakintsu-berriak, Alcarriako pentsakizun argitsuaren aurrerapen bat besterik ez dire, gaixoa, atzeratua, menderatua eta dretxorik-gabekoa den euskal-ghetto hontan.

Bestela, arrigarriena litzake euskal ghettoan daudenentzat bakarrik argitaratzen dituztela beren lanak; eta euskeraz. Normalena izango litzake, Alcarrian eta alcarriako mintzeiran argitara ematea. Utzi beharko dituzte ghetto-izpirituaren azken ondarrak (sortzeak, azierak, mintzairak etab. osatzen dutenak), eta aldakuntza egin. Hala lortuko luteke plomu psikikoa.

Konprenitzen ez duguna da, nola ghetto honek ematen dituen hainbeste buruko-min, Alcarriako izan diren, diren eta izango diren kolonialista guzietan.

Ez ote da izango, Bizkaiak, hala guztiz ere, Bizkaia izaten irauten duelako?